

Maitasuna, proteina kontua

El viaje al amor, Eduardo Punset
(Destino 2007) 238 orrialde, 19,50 euro

Ekonomialaria, abokatua, pentsalaria, ministro ohia eta hamaika gauza gehiago da Eduardo Punset katalana (Bartzelona, 1936). Baina batez ere zientzia zabaltzeagatik da ezaguna, espainiar telebista publikoan zuzentzen eta aurkezten duen *Redes* dibulgazio-saioa gero eta ordu txikiagotara baztertua izanagatik. Idazten ere trebea du. Uneon, 2005ean hasitako trilogia handinahiaren bigarren zatia ezagutarazten dabil han-hemen. Zoriontasunaz, maitasunaz eta botereaz jarduteko asmoa agertu du Punsetek, eta dagoeneko burutu ditu bidaia horretako lehenengo etapa biak, bai eta *best seller* zerrendetan sartu ere.

Gaztelaniaz idatzitako *El viaje al amor* (Maitasunera bidaia) lanean, bartzelonarrak zientziaren galbahetik pasa du hainbeste eleberri, poema, pelikula, asmo eder, ekintza maltzur, algara nahiz malko eragin dituen sentimendu unibertsal hori. Eta horretaz guztiaz biluzi du, erreakzio kimikozko soineko xume bat baizik ez utziz. Hasiera-hasieratik, egileak zalantzarako aukera guztiak uxatu ditu, "gizakion maitasunaren sekretuak azaldu dizkiguten bakteria, zizare, sagu eta primatee" eskaini baitie liburua. Haiek ez dute irakurriko ordea, bistan denez; bai gizakiok, batzuek

behintzat, eta agian Punseten prosa arin bezain oparoaz maiteminduko dira zenbait.



Eduardo Punset

Historian lehenbiziko aldiz, eta teknologia-aurrerapenari esker, zientziak maitasuna azter dezake, dio Punsetek. Hala hasi gara jabetzen ustez itsua den sentimenduak eboluzioan eta biologian dituela oinarri sendoak. Eta aspaldikoak, gainera. Bizia agertzeaz batera agertu baitzen maitasuna. Besteekin bat egiteko grina, izan ere, zelula bakarreko izaki zaharrenak bezain zaharra da, eta beraz edozein arima, kontzientzia edo emozio baino askoz lehenagokoa. Hortik abiatzen da Eduardo Punset, ondoren sexuaren sorreraz, bikote hautaketaren gakoez edota desamodioaren zergatiaz mintzatzeko, besteak beste. Eta amaieran, maitasunaren formula proposatzen digu. Bai, formula matematikoa. Erromantizismoa egon badago, baina auskalo zein hormonatan.

UNAI BREA

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 PK. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA

ARGIA

35